



ODISEAREN GEOGRAFIA

JOANES IDIAKEZ IZAGIRRE

Euskal Herriko Unibertsitatea
Historiako Gradua 2015-2016
Maria Isidora Emborujo Salgado
Ikasketa Klasikoak



ODISEAREN GEOGRAFIA

Joanes Idiakez Izagirre



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

LABURPENA/ABSTRACT

Honako lan honen helburua, *Odisearen* geografiaren ikerketa esparruari ekarpen xume bat egitea izan da. Homerok eta bere literatur lanak neurrigabeko garrantzia dute gaur egundaino iritsi den mendebaldeko kulturaren eraketa ulertzeko garaian, eta guk K.a. VIII. mendean idatzi zen *Odisea* poema epikoa oinarritzat hartuz, bertan azaltzen den geografia aztertu dugu; baita honek errealitatearekin eta mitologiarekin duen erlazioa ere. Aditu klasiko zein garaikide ugarik ikertu duten aztergaia izan da eta iturri kontaezinak aurki ditzakegu. Honek aldi berean, interpretapen anitzak azaleratzea ekarri izan du, kontrajarriak direnak askotan.

Greziar Aro Arkaikoko kosmobisioa eta geografia kontzeptua ulertzea izan da lehen pausoa poema epikoan agertzen den informazioa interpretatzeko. Behin gaian barneratuta, Odiseoren bidaia analizatuko dugu puntuz puntu, lurraldez lurralde, bakoitzaren kokapen eta deskribapen fisikoan kokatuz batez ere.

Kartografiaren aspektua ere ezinbestekoa izango da *Odisearen* geografia ulertzeko eta horregatik, historian zehar egin diren mapak ikertu eta Gradu Amaierako Lanean proposatzen dugun interpretazio mapa berria aurkeztu dugu.

Azkenik, mitologia eta errealitatearen arteko muga finean nabigatzen duen lan honen inguruko gure ikuspuntua azaldu dugu, iturri bibliografiko ezberdinez baliatuta.

The aim of this work is to make a humble contribution to the research field of the geography of the Odyssey. Homer and his literary works have an incalculable value on the creation of the Western culture which has survived until today. That is why we based on the epic poem called Odyssey, written in the eighth century B.C., to analyze the geography it presents; in addition to the relationship it has with mythology and reality. Several classic and contemporary writers have conducted many researches around this artwork, and there are countless written sources referring to the places that crossed the protagonist Odysseus. These sources, has created the same number of interpretations that they contradict each other many times.

The first step of the work is to understand the cosmology and geography concepts within the Greek Archaic Period, to interpret the information it contains the epic poem. Once entered into the subject, we analyzed point by point each territory, focusing on physical descriptions and locations throughout the Mediterranean Sea.

The cartographic aspect on the subject is also essential to understand the geography of the Odyssey. Therefore we go over some maps made along the history and we will present a new one in this Final Career Project.

To conclude, we express our outlook on this research field that navigates on the thin line between mythology and reality, using different bibliography sources.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. ARO ARKOIKO GEOGRAFIA	5
2.1. HOMERO ETA GEOGRAFIA.....	5
2.2. MUNDUA ETA OZEANOA.....	7
3. ODISEAREN GEOGRAFIA	9
3.1.KARTOGRAFIA.....	17
4. ODISEAREN MUNDUA	18
4.1.ANALISIA.....	18
4.2.HOMEROREN PERSPEKTIBA.....	22
4.3.HOMEROK ITXURATU NAHI ZUEN MUNDUA.....	22
4.4. MAPA PROPOSAMEN BERRIA.....	23
5. ONDORIOAK	25
6. BIBLIOGRAFIA	29
7. ERANSKINAK	31



1. SARRERA

Homero pertsonaiarekin lotzen diren poema epikoek mendebaldeko kulturaren hazia suposatu zuten. Ondorengo mendeetan ernamuindu zen bertatik ardatz izango zen enborra, eta handik atera zitzaizkion mitologia, kosmologia eta bizimodu idealaren gisako adarrak, baita loratzen amaituko zuten filosofo, geografo eta historialari handiak. Poema homeriko hauek zientzia askoren iturria kontsideratzen diren heinean arlo ezberdinetatik egin izan dituzte ikerketak, hala nola ikuspuntu filologikotik, historikotik, geografikotik, soziologikotik edota erlijiosotik. Beraz, autore joniarraren eta bere lanen garrantzia ukazina da. *Iliada* eta *Odisea* dira bere bi lan esanguratsuenak, eta honako lan honen bitartez, bigarren idatzi zenaren inguruko analisi geografiko bat garatu nahi izan da; orain arte gaiaren inguruan ikertutakoa birplanteatuz.

Odisea lana, protagonista den Odiseok Troiatik Itakara egiten duen bidaian oinarritzen da hein handi batean. Bidaia hau izango da kontakizunaren ardatz nagusienetakoa eta narrazioa aurrera eramateko, itsasoaren eta bere barne eta inguruko lurraldeen informazio eta kokaguneak eskaintzen dizkigu. Hasiera batean behintzat Mediterraneo itsasoa dirudienaren lehenengo “erabateko” deskribapena eskaintzen duela dirudi. Horixe izango da *Odisearen* geografiaren ikerketen oinarria, Odiseoren bidaia interpretatuz, garaiko ezagupen geografikoak ulertu eta ahal den neurrian epika heleniarra eta mediterranear mapa fisikoa elkar gurutzatzea.

Lan hau aurrera eraman ahal izateko iturri nagusia, ulertzekoa den moduan, *Odisea* bera izan da. Baina bestalde, lehen aipatu bezala ikerketak antzinate beretik existitzen direnez, autore klasiko entzutetsu ugariaren iturriak erabili ditugu; batik bat, Odiseako lurraldeak aipatu edota eurei buruz hitz egiten dutenak. *Odisea* idatzi zen garaiari geroz eta gertuago egon iturri hauek, interpretatu nahi izan dugu, orduko munduaren pertzepziara gehiago egokitzen direla eta zentzu batean, garaikideagoak diren lanek eskaini ezin duten informazioa helarazten digutela.

Bibliografia osatzeko, egungo ikertzaileen lanak ere izan ditugu esku artean eta eskaintzen dituzten interpretazio anitzek osatzen duten abaniko zabal honen barnean, maiz, elkar osatu baino elkarren aurkako joera erakusten dute, dituzten ezberdintasunak direla medio. Hau izango da *Odisearen* geografian sartu aurretik kontuan hartu beharreko irizpide nagusia: zer hartuko dugun oinarritzat jakitea, liburu literarioa edo gaur horren ondo ezagutzen dugun mediterranear geografia, *Odisea* errealitatearen esparruetan txertatzea edo mundu fisikoa artelan epikoaren barruan interpretatzea.

Nahasgarria badirudi ere, abiapuntuak eta intenzionaltasunak hamaika aldaeretako ondorioetara eramán izan ditu adituak .

Garatutako metodologia, korrante eta ideia ezberdin zein aberatsak hartuta, Odisearen perspektiba propio bat azaltzean oinarritu da. Horretarako, *Odisearen* geografian oso ohikoa den alorra ere lantzen saiatu gara, kartografiaren aspektua, alegia. Interpretapen ezberdinak plasmatzen dituzten mapa ugari egin dira historian zehar eta gure *Odisearen* ikerketa geografikorako ezinbestekoak izan dira. Tradizioari fidel, ikertze epe labur honetan jasotako ideien fruitu izan den mapa bat aurkeztu dugu Gradu Amaierako Lanean, ideiak orain arte mapa baten gainean gauzatuak izan ez diren modu batean burutzen saiatuz.

Esan gabe doa gai honek sortu digun asebetetasuna oso handia izan dela: historiako eztabaidagai zaharrenetariko bat izan arren, *egun eta gau* ugariko azkengabeko bidaia baitu aurretik. Geografiak ere ikertze esparru handiegia hartzen du bere baitan eta beraz, oinarritzko kontzeptuetara mugatua izan da honako lanean: Homero eta geografia, mundua eta ozeanoa.

2. ARO ARKOIKO GEOGRAFIA

2.1. HOMERO ETA GEOGRAFIA

Homeroren lanek atzera bueltarik gabeko garapen eta bilakaera garai batean murgildu zuten greziar herria. Etortzeke zeuden belaunaldientzat saihestezina -edo halabeharrezkoa- izango zen obra hauek berriro irakurtzea, bertan baitzeuden euren bizitzan erabiliko zituzten heziketa patroiak, baita espazioa eta denbora ulertzeko moduak ere: tradizioa, moralak eta ohitura osatzen dituzte testuok, hau da, hiritarrek euren bizitzan atzeman behar zuten zerbait (Molina Marin 2010, 47). Greziar herriarentzat gisa honetako lanak Homerorenak izan ziren, Platonen ahotan “Helade osoko hezitzailearenak”¹.

Geografia grekoaren hasiera herabetsuak pentsaezina egiten du beraz, lehenengo geografo greziarrek mitoen kontakizunetako uretatik ez edatea bizi ziren mundua ezagutzeko bidean. Era berean greziarren pentsamendu geografikoaren garapena ezagutu nahi duen orok, zentzu batean gu geuk lan honen bitartez, nahitaezkoa du Homerorengandik hasia, Estrabonek “geografia ikerlan enpirikoen fundatzaile” tituluaren ohoredun bilakatu zuena².

¹ Plat. Rep. 606e.

² Strab. 1, 1.2.

Geografo hitzak ez du pertsona bera deskribatzen gaur egun eta honako lan hau oinarritzen den garaian. Geografoa zentzu batean filosofo bat zen, nahiz eta geografiak errealitate fisikoa aztertzen duen eta filosofoak ente abstraktu edota metafisikoak. Izan ere, antzinateko geografo handienak, Estrabon, Zizeron eta Seneka esaterako, filosofotzat hartzen zituzten, geografoek *antroposfera* deskribatzen zutelako. Ingurua eta gizakia banatu ezin ziren bi arlo ziren, betidanik jakin baitzuten bi elementu hauen artean etengabeko elkarrekintza zegoela. Baina erlazio hau haratago zihoan, natura eta gizakia printzipio *-arché-* berdinerara murriztuz batu egiten zituzten, gizakiaren esentzia ezagutzea derrigorrezkoa bilakaturik geografia ulertzeko (Staszak, Glacken 2002, 437).

Honetaz gain, lanean zehar ikusiko dugun bezala, greziarrentzat *oikumene* (mundu habitatua) kontzeptuak mundua erdigune eta periferian banatu arazten zuen, muga geografikoa muga kultural ere bihurtuz. Mundu grekoa erdigunean aurkitzen da, eta herrialde atzerritarrak mundu habitatu horren ertzera eramaten dira, ezberdina, barbaroa, bihurtzen den tokira. Hasiera batean, ikusia izan dena deskribatzean oinarritzen zen geografia (*autopsia*), eta adar filosofikoak metodologia eta pentsamendu sistema bat eskaintzen zion. Filosofoek geografo lanak ez zituzten espazioa ulertzeko egiten, baizik eta euren gizartea eraldatzeko. Geografoa orduan, ezagutza mundu askotara zabaltzen zuen jakintsu bat zen, *polimatos*, eta geografia adar askotan zabaltzen zen enbor bat (Rihll 1999, 82), espazioa definitu eta gizakiak berarekin duen erlazioa jakitea ahalbideratzen ziona geografoari. Ulertzen dugu Antzinateko geografia ezin dela ulertu bere izaera polimorfiko eta multidiziplinarioa kontuan hartzen ez bada.

Homero eta Hesiodo izan ziren greziar tradizioaren aurkezpenaren lehen protagonistak, auto-definizioaren bila zegoen kultura heldugabe horretan. Honen barnean, gizartea zen komunitatearen tradizioa eta zientzia islatzen zituen ispilua. Testuinguru horretan, lehenengo geografia mitikoa bere ez-zehaztasunagatik ezaugarritzen da: gune guztiak daude kokatuak, baina oso era anbiguo eta alferrean, zehaztasunik gabe, bidaiariei lurralde horietara iristeko aukerarik utzi gabe.

Era guztietara ere harrigarria da pentsamendu heleniarra bere hasieratik jatorri “polemiko” batean sartuta egotea. Homero lehen autore izaki, edozein mendebaldeko narrazioaren hasierako puntua suposatzen zuen eta zalantzarik ohorea dauka tradizioa bera bezala identifikatzen baitzaio. Autore klasikoaren artean, bera da originalena, idealen iraultzarik ekartzen ez zuena, dependentzia gutxi ziena, kontserbadoreena, etab. lehena izateagatik. Patuak hala nahi izanda, Homeroren munduaren karga garraiatu

beharko zuten geografia eta zientziak, euren garapenerako betiereko bidelagun (Molina Marin 2010, 60-61).

Finley-ren ustetan, Homero (egilea) ez da zinez dokumentaturik dagoen kronista bat, ezta “gerra korrespontsal” bat ere (Finley 1967, 87)³. Gaur egun historialari eta filologoen artean eztabaida dago bere existentziaren inguruan, baina lanak datatu dira. Gutxi ez bazen, litekeena da *Iliada* eta *Odisea* autore ezberdin bat edo gehiagok idatzia izatea, denbora esparru ezberdinetan (Kirk 1985, 300). Beraz ez da harritzekoa aditu askok Homerok geografia mizenikoaren inguruan jasotako hitzak baliogabetzat ikustea (Ventris; Chadwick 1973, 415).

Batzuetan, historia “egiten” denean, iturririk ez izatea hobea da iturri txar bat izatea baino. Poema homerikoetan dauden interpolazioak direla eta, oso zaila suertatzen da jakitea zein periodo historikotako informazioa jaso dezakegun liburu hauetatik (Lesky 1989, 60). K.a.1200. urte inguruko jazoerak islatzen dituzten poemak dira lehen begiratu batean, Troiako gerrari tradizionalki egotzi zaion garaia K.a. XII. mendea delarik (K.a.1194-1185 mitoaren arabera, Troia VII Hissarlik aztarnategiko stratigrafiaren arabera). Aditu gehienak bat datoz *Iliada* eta *Odisearen* idazte garaia K.a. 850-750.urteen artean kokatzerako garaian (González Torres 2006, 15).

Perspektiba honekin jarraiki, egokiagoa litzateke bi poema homerikoak bananduta aztertzea. Ildo honetatik aditu ugari konparaketak egin izan ohi dituzte bien arteko desadostasunak agerian jartzen direnean. Guk kasu honetan *Odisea* lanari buruz jardungo dugu, Odiseori nondik nora ibili zen argitzen laguntzeko asmotan.

2.2. MUNDUA ETA OZEANOA

Orokorrean, *Odisean* aurki daitekeen informazio geografikoa askoz ere oparoagoa da *Iliadan* agertzen dena baino. Herri berri ugari (erenbotarrak, zimeriarrak, etab.) eta lekuen (Sizilia, Lipari, etab.) agerpenak Odiseoren epopeian, lurrazalaren ezagutza zehatzago baten fruitu dira, aurretik ezagutzen zirenei gehitzen baitzaizkie (Egipto, feniziar eta etiopiar herriei adibidez). Aspektu hau, argumentu sendo bat bilakatu ohi da *Odisearen* konposizioa berantiarra izan zela justifikatzeko, estilo eta gaien azterketaz gaindi (Molina Marin 2010, 55).

Greziarrek, denbora luzean zehar, Lur planeta lurralde zabal bat bezala ikusten zuten, baina paradoxikoki, benetan zeukana baina hedapen maneigarriagoarekin

³Autoreak bere lanean Homero gerra korrespontsal bat izan zenaren teoria baliogabetzen du.

irudikatzen zuten. Ez zen soilik bi kontinenteetara murrizten (batzuk hiru zeudela argudiatzen duten arren, Afrika eta Asia bat edo bi kontatzearen ezberdintasunean), baizik eta lur zati hauetako bakoitza benetan zena baina askoz txikiagoa imajinatzen zuten. Hala ere, honek ez zuen mundua bizileku lasai batean bihurtzen, munduaren kanpo mugek sor zezakeen gertutasunak larritzen baitzituen; horrela, espazio ezezagunei errealitatearekiko ematen zieten hurbiltasunak mitoen ernaltzea justifikatu izan ohi du.

Bigarren kolonizazioaren testuinguruan, K.a.VIII-VI. mende bitartean, greziar hedapena Mediterraneoan eman zen, Itsaso Beltza inguratzen zuten esparruetara ere helduz. Hedapen tendentzia hau horizontala izan zen, horrela joan ziren lurraldeak deskubritu eta bereganatzen. Ulertu daiteke bere testuinguruan horizontaltasun hori eurak bizi ziren mundu “bizigarri” horren arabera zela: iparraldeko hoztasun ilunak eta hegoaldeko bero izugarriak, Mediterraneo itsasoa eta zehazkiago Egeoko zonaldea, zonalde epela, egiten zuen bizigune egokiena. Bestalde, ekialdetik mendebalderako lekualdatzeak orientagarriagoak izango lirarteke Aro Arkaikoko itsasgizonentzat, eguzkiaren eguneko jardunaldia baliatuta nabigatuko bailukete (Brioso Sanchez 1993, 212). *Odisean* eta bestelako Homeroren lanetan, norabide bakarreko geografia horizontal hau nabarituko da eta aditu batzuk, bere estilo propio bezala ezaugarrituko dute. Horizontaltasun hau, geografia homerikoa ulertzeko aztergai nagusienetakoa izango da, eguzkiaren argi eta iluntasunaren dikotomiarekin batera.

Gisa hontara -poema homerikoetan oinarrituta- oinarritzko mapa mental primitibo bat eratzen zuten, *aedoek* euren kontakizunetan zabalduko zutena (Molina Marin 2010, 58). Horrela denborarekin erdigune-periferia antagonismora bideratuko ziren gizartearen ideiak.

Geografiaren ikuspuntutik Ozeano Ibaia da epika homerikoaren ekarpen garrantzitsuenetakoa. Homeroren Ozeanoa (ik.1.Map) ibai zirkular bat da, hasiera eta amaierarik gabekoa, bere baitan amaitu eta hasten dena. Kontzepzio hau ez da kultura grekoarena soilik (Ballabriga 1986, 1322). Bere kurtso zirkularrak betiereko itzuleraren irudi perfektua islatzen du. Bera da “Ibai, itsaso, iturri eta putzu sakon guztien sorburua”⁴ eta bere barnetik ateratako urak, Mediterraneoan biltzen dira. Interpretaziotara joaz, baliteke Atlantikoa edo Indiar itsasoa izatea “ur guztien sorleku” zen ibaiaren kokagunea. Ozeanoak zeukan esentziak berak, helezina egiten zuen

⁴ Hom. Il. 21, 195.

gizakien sarrera, egoera arruntean bazeuden bederen. Pentsaezina zen garai hartan bere kokagunearen identifikazioa burutzea (Brioso Sánchez 1994, 187). Ozeano Ibaiak ez du soilik mundu habitatuaren eta Lurraren amaieraren arteko muga egiten, baita bizidunen eta hildakoen artekoa ere; Odiseok bertako korronteetatik nabigatu beharko du azpimundura iristeko⁵. Bere uretatik haraindi ez dago ezer, *Ouraboros* sugearen antzera, ez du ez hasiera ez amaierarik eta jainkoak edo figura mitikoak soilik mugi daitezke zigorgabeki ur horietatik⁶.

Ozeano ibaiaren existentziak bistako ondorio espazialetara garamatza: mundua uharte handi baten kontzeptura murrizten da. Mediterraneo da kontinenteak ateratzen diren puntuaren erdigunea, uharte-mundu baten zentroa, zeina ozeanoaz inguratua dagoen alde guztietatik. *Odiseak* berak ere ibaiaren irudi hori kontserbatzen du, mundua biltzen duenarena⁷; are gehiago, ur bazter bat bestea baina urrutiago duela esaten da⁸. Bestalde, metaforen erabilerak asko zailtzen du errealitatearen ezagutza zehatz bat lortzerako garaian, baina jakin badakigu, gertaera hau ohikoa dela epika lanetan.

3. ODISEAREN GEOGRAFIA

Antzinateak pizten duen erakargarritasunaren alor garrantzitsu bat, zibilizazio zaharrek utzi zituzten misterioak –erreal zein asmatuak- ebaztean datza. Misterio horien artean, askotan inkognita huts direnak, garai hartako iturri idatziek aipatutako gertaera historikoen une konkretuen kokagunea ondorioztatzea izan da. *Odisea*, *Iliadarekin* batera, heleniar zibilizazioaren adierazpen literario zaharrena da eta beti suposatu izan dute gune ezberdinen izen iturri amaigabe bat, hala nola Ogigia –Kalipsoren uhartea-, Eoloren uhartea, Polifemo ziklopearena edota Hadesen mundu itzaltsurako sarrera. Hauen kokapena jakitea antzinate beratik eratorritako interes bat izan da, zeinetan kasu askotan giza logikatik kanpo aurkitu behar den euren existentzia (Domínguez Monedero 2006, 74).

Odiseok, Troiatik bere etxea zen Itaka uhartera eginiko bidai luze horretan, igarotako lekuen identifikazio geografikoen inguruko polemika eta zalantzak ez dira falta izan, gai honekiko interesa piztu zen une beretik. Historialari eta geografo greziar klasiko gehienek leku errealei erreferentzia egiten zieten defendatzen zuten, nahiz eta

⁵ Hom. Od. 10, 508.

⁶ Apollon., 4, 636.

⁷ Hom. Od., 11, 639; 20, 65.

⁸ Hom. Od., 24, 11.

kokaleku zaila eduki. Apolodorok⁹ edo Crateseko Malosek¹⁰ *Odisearen* geografia errealaren ideia zabaldu zuten. Polibio bezalako historialari greziarrak aldiz, zalantza egiten zuen¹¹ eta beste askorentzat, alegiazko istorio bat zen. Eratostenes erudituaen – Alexandriako liburutegiko burua izandako geografo eta astronomo greziarra- esaldi esanguratsua da txanponaren beste aurpegiaren erakusle garbia. Bere esanetan *Odisearen* eszenario geografikoa zehaztasunez “Eolok Odiseori entregatu zion haizeen zakua egin zuen larrugina aurkitzean” kokatuko zen, Estrabonek jasotako hitzetan¹².

Estrabon geografo ikasiak ere K.o. lehen mendean herrietako ohitura zaharrek ziotena defendatu zuen, *Odisearen* inguruko uste eta antzinako tradizioei duintasuna itzuliz. Bere esanetan, ohitura zaharrak ez ziren behartu behar informazio zehatza eman zezaten, baina ez lirateke ezta ere albo batean utzi beharko arrazoirik edota errealitatearekin konexiorik ez dutenaren aurreiritziaren ondorioz (Schoder 1987, 319).

Atal honetan beraz, puntuz puntu gune bakoitzari begirada bat eskainiko diogu gaian aditu diren iturri klasiko eta garaikide esanguratsuenak¹³ proposatzen dituzten kokaguneak birpasatuz. Errealak edo ez, puntu guztiei eman izan zaie kokapen zehatza Mediterraneo itsasoan zehar, nahiz eta batzuen existentzia edota kokapena ez diren guztiz onartuak izan. Homerok ez zuen bere irudimena mapa batez mugatua ikusi, jakin baitakigu sormenezko poeta zela eta ez ikerkuntzan jarduten zuen zientzialari edo akademiko bat; gune eta ekintza asko gaizki edo errealitatearekin erlaziorik eduki gabe identifikatzen zituen nahita (Schoder 1987, 320). *Odisearen* trama Peloponeso eta inguruko uharteetan kontzentratzen da, baina beste lurralde batzuei ere egiten zaie aipamena, besteak beste, Kreta, Sizilia, Fenizia, Etiopia eta Egipto. Honekin nola edo hala ondoriozta daiteke idatzi zen garaian zeukaten ezagutza espaziala *Iliada* idatzi zen garaikoa baina hobea zela, nahiz eta ekintzaren erdigunea Mediterraneo ekialdea izan.

Kontakizunean zehar lurralde eta herri ezberdin asko aipatzen dira eta narrazioa ez dago denboran linealki adierazia: orainaldian hasten da *Telemaquia*, Telemako

⁹ Apollod. Epit., 7, 1: "Odiseo, según dicen algunos, anduvo errante por Libia o, como dicen otros, por Sicilia, o en fin, según otros, por el Océano o por el mar Tirreno".

¹⁰ Maloseko Cratesek, Pergamoko liburutegiko zuzendariak k.a. II. mendean esan zuen Kanpoko Ozeanoan (Atlantiarrean) eman zirela Odiseoren abenturak, Herkulesen zutabeetatik (Gibraltargo itsasartetik) haratago.

¹¹ Plb. 34, 4. "Fantástico pero verosímil".

¹² Strab.1, 2, 15.

¹³ Stillman, W.J. *On the Track of Ulysses* (1888); Halliburton, R. *The Glorious Adventure* (1927); Bérard, V. *Dans le Sillage d'Ulysse* (1933); Golding, L. *Good-bye to Ithaca* (1955); Bradford, E. *Ulysses Found* (1963); Lessing, E. *The Voyages of Ulysses. A Photographic Interpretation of Homer's Classic* (1965); Obregon, E. *Ulysses Airborne* (1971); Severin, T. *The Ulysses Voyage: Sea Search For the Odyssey* (1987); Roth, H. *We Followed Odysseus* (1999); Huler, S. *No Man's Lands: One Man's Odyssey in the Odyssey* (2008); Geisthovel, W. *Homer's Mediterranean* (2010).

Odiseoren semeak bere aitaren berri izateko egiten duen bidaia kontatuz bai Pilosera eta bai Lazedemoniara (Esparta). Ondoren Odiseoren orainaldian sartzen da Eskeriako lurraldera iritsi eta bertan Altzinoorregeari bere bidaia kontatzen dion arte, Troiatik Kalipsoren uhartera bitartekoa, zehazki. Berebiziko arreta ezarriko dugu Odiseok egin zuen bidaiari, Itaka bere aberrira iristen den arte. Esan gabe doa, narrazioan ere aldaketa ematen dela: batzuetan narrazio zuzena da, periploa poetak narratzen duenean, eta ez zuzena pertsonaiak hitza hartzen duenean. Horrela, zuzena izango da Ogiak Kalipsoren uhartetik Feazioen uhartera bitartekoa eta bertatik Itakara bidekoa (Telemakoren pasarteaz gain), eta ez zuzena Odiseok bere bidaia kontatzen duenean Eskeriako jauregian (Vidal Naquet 2001, 16).

Troian, Τροία edo Ἴλιον, ezartzen da abiapuntua. Honen kokapena jada nahikoa lokalizatua dago, Schlieman-en aurkikuntza famatuaren ostetik. 1860an buruturiko indusketa arkeologikoen Hissarlik muinoan, Anatoliako penintsularen ipar mendebaldean kokatzen dute, Egeoko itsasotik lau milatara (Finley, 1975, 44).

Bertatik bisitatu zuen lehen tokia Kitirako lurraldea –Zikondarren lurraldea– izan zen, Ismaro hiria arpilatu eta zenbait gizon galdu zituen Odiseok. Maron Apoloren sazerdote zena babestu izanagatik ordainetan ardo zapoetsu bat eman zion protagonistari, ondoren Ziklopea lokartzeko erabiliko zuena¹⁴. Kokaleku hau ere historikotzat hartzen da, garaikidea zen herrialde bezala identifikatua, Herodotok Zikondarren uhartera Trazian kokatu zuen, Troiaren ipar mendebaldean. Jarraian Odiseo ipar haize bortitzak lagunduta¹⁵ greziar hego ekialdera bultzatua izango da, Maleako lurmuturreraino eta bere hego kostaldetik Zitera uharteraino¹⁶

Iparralderantz bere etxea zen Itaka uhartera nabigatzen saiatzen ari zela, ipar haize indartsu batek joko du, bederatzi egunez itsasoan aldenduz bere tripulazioa Lotofagoen uharteraino eramanez¹⁷. Momentu honetan hasiko da Odiseoren bidaia mitikoa. Loto fruituak jaten zituzten uharte horretan bere gizonak atera beharra izan zituen protagonistak, fruituen efektu haluzinogenoak kutsatuta geratu baitziren. Autore klasiko ugari aipatzen dute uhartera eta aditu garaikideak nahiko ados agertzen dira uhartearen kokalekua Afrikako mendebaldeko kostaldean kokatzerakoan. Aditu garaikide batzuk Libiako kostaldean kokatzen duten arren (ik. Taula), gainontzekoek,

¹⁴ Hom. Od. 9,39-66, 196-198.

¹⁵ Hom. Od. 9,7

¹⁶ Hom. Od. 9,80-81

¹⁷ Hom. Od. 9,79-85

autore klasikoak barne¹⁸, egungo Tunisiako Djerba uhartean kokatzen dute, Estrabon izanik lehenengoa.

Bertatik kostata aterata hurrengo egunean Polifemo (*Polyphêmos*) ziklopearen uhartean lur hartu zuten. Poseidonen semea mendi eta leizez betetako baso batean bizi zen¹⁹. Odiseo eta bere gizonak preso geratu ziren piztiaren leizean eta gizonak egunero binaka irensten zituen. Azkenik, protagonistaren azkartasuna agerian erakutsiz begibakarra ardoarekin lokartu eta lantza baten bidez itsututa ihes egitea lortu zuten. Hori dela eta, Poseidon itsasoetako jainkoak begizkoa bota zion Odiseori, ziklopea bere semea baitzen. Odiseo nondik zetorren eta ondorengo helmuga ikusita, baliteke bere kokapena Sizilia mendebaldeko kostaldean aurkitzea, hori da autore gehienek onduko nahiz eta uhartean bertan desadostasunak egon (ik. Taula). Hainbat autore klasikok ere aipatzen dute puntua euren lanetan²⁰

Eoloren erreinua zen Eolia “uharte mugikorra, brontzezko harresi hauskaitza, barnean haitz malkartsuak zutitzen direla” bezala deskribatua²¹, da hurrengo puntua. Eolok Odiseori lagundu nahian, munduko haizeak gordetzen zituen larruzko zaku bat eman zion eta mendebaldeko haizea –Itakara itzultzen lagunduko ziona- soilik utzi zuen zakutik kanpo. Ziklopeen uhartearen eta Itakarako itzulera ahaleginaren artean kokatua dagoenez kontakizunean, Sizilia inguruan kokatzen dute gehienek, zehazkiago autore klasikoek²², eta garaikide batzuk Sizilia iparraldeko Lipari uharteetan kokatzen dute. Stromboliren (Lipariko uharteak) formazio bolkanikoak eta itxura konikoak “haizearen uhartearen” antz gehiago eman dakioke irudimenezko munduari. Bederatzi egun eta gau igaro ostean²³, Itaka begiztatzen zutela, itsaskide batek zakua ireki eta erabat aldentu ziren helmugatik.

Berriro Eoliara itzuli ziren²⁴ ibilbidea zuzenki errepikatuz eta Eolok babes gehiago emango ez ziela esan ondoren, haizeen laguntza gabe sei egun eta gauren ondoren Telepilora, Lestrigondarrak bizi ziren uhartera, heldu ziren; eguna eta gauak bat egiten zuten lurrera²⁵. Erraldoi antropofago hauek ia tripulaziorik gabe utzi ostean Odiseok ihes egitea lortu zuen. Hemen desadostasunak ugaritzen hasten dira; autore

¹⁸ Strab.1,2,17; Hdt. 4, 177; Ps. Scilax. 110,1,4; Plb. 34,3; Plin. Nat. 5,4,26.

¹⁹ Hom. Od. 9,105-119.

²⁰ Thuc. 6,2.; Eur. Cycl.18-26; Theoc. Id. 11,7; Verg. A. 3,570; Ov. Met. 14,154; Plin. Nat. 3,38; Stat. Theb. 6,716; Dict. Cret. 6.5.

²¹ Hom. Od. 10,1-4.

²² Thuc. 3.88; Plb. 34.2; Ov. Met. 14.223; Strab. 1.2.9; Strab. 6.1.5; Paus. 10.11.3.

²³ Hom. Od. 10, 25-28.

²⁴ Hom.Od.10, 47-55.

²⁵ Hom. Od. 10, 80.

klasikoek Sizilian kokatzen zuten²⁶ eta autore garaikideek aldiz Bonifazio (Korsika hegoaldean), Sardinia iparraldean eta Peloponeso eta Sizilia mendebaldean, besteak beste (ik. Taula).

Odiseoren ontzia soilik libratu zen amesgaizto horretatik eta itsasoan barrena Zirze sorginaren Eea uhartera iritsi zen²⁷, eguzkiaren sortaldea eta sartaldea ezberdintzerik posible ez zen lurraldera²⁸. Antzinako iturriek²⁹ eta garaikide gehienek Zirzeo mendiarekin identifikatzen dute kokagunea, Terracina iparraldean (Italia). Hala ere gaur egungo idazle batzuek beste kokagune batzuk ere aurkitu dituzte (ik. Taula).

Zirzek esan bezala, Odiseo Azpimundura, Hadeseko sarrerara, gerturatu zen hamaikagarren rapsodian, Tiresias profetaren mamuari galdetzeko. Zimeriarren herrialdera iritsi zen lehenago eta han ardi batzuk sakrifikatu ondoren sartu zen. Bertan Tiresiasek Itakarako itzulera zaila profetizatu zion eta jarraian bere odola gertukoen artean banatu ondoren hildakoen lurraldetik ateratzea lortu zuen heroiak. Zimeriarrak benetan existitu ziren herrialde nomada historiko bat baziren, baina kontakizun honetan ez da herri hori aipatzen (Itsaso Beltzean eta Asia txikian mugitzen zirenak, alegia).

Hadeserako sarreraren kokagunea ez dago batere argi eta autore asko kokatzen saiatu diren bezala, beste askok ez dute gune jakin batetara mugatu nahi izan, Lurrean ez dagoela argudiatuz (garaikideak batez ere). Zimeriar hauek Ozeano Ibaiaren ertzean egongo lirake, Hades hildakoen erreinuaren atarian. Idazle klasikoen artean zenbaitek Avernus lakuan kokatzen dute Sofokles, Eskilo eta Estrabonek³⁰ esaterako, baita eta Dio Cassius-ek³¹ eta Plinio Zaharrak³² hor inuruan baita ere. Autore klasiko batzuek beste pertsonaia mitologikoen aipamenetan bestelako leku batzuk esaten dituzte ordea: Zizeronek, Persefoneren abdukzioan Enna mendi magalean kokatzen du³³ eta Pausaniasek, besteak beste, Heraklesen Katabasis-ean³⁴ Tinaro lurmuturrean ezarri zuen

²⁶ Ps. Hes. Cat. 150,26; Thuc. 6,2,1; Hor. Carm. 3,16,34; Cic. Att. 2,13,2; Strab. 1,2,9; Plin. Nat. 3,5; Plin. Nat. 3,14.

²⁷ Hom. Od 10,135-36.

²⁸ Hom. Od.10,190-196.

²⁹ Hes. Th. 1011-1015; Ps. Scilax. 8; Apollon. 311; Cic. N.D. 3.48; Verg. A. 7,10; Ov. Met. 14.8; Strab. 5,3,6 Plin. Nat. 3,5; Ptol. 3,1.

³⁰ Strab. 5,4,5.

³¹ C.I. 48,50,4.

³² Plin. Nat. 3,9.

³³ Cic. Ver. 2,4,107.

³⁴ Paus. 3,25,5.

sarrera. Garaikideek berriz, askok ez dute lokalizatu nahi izan eta beste batzuek Avernus lakuan edo Matapan lurmuturrean (beste puntu batzuek gain) kokatu izan ohi dute³⁵.

Odiseo arazorik gabe itzuli zen Hadesetik Eea uhartera³⁶. Bertan Zirzek helburura joateko Sirenen uhartetik igaro beharko duela esaten dio baina ez duela lur hartu behar bertan³⁷. Uharte hau Galli uharten artean kokatzen dute autore klasikoek³⁸. Garaikide batzuk, uharte horien barnean Capri uhartearekin lotzen dute. Beste batzuk aldiz joniar uharteetan edota Sizilia ipar ekialdean kokatzen dute (ik. Taula).

Zirzeren gomendioari jarraituta, Odiseok Eszila eta Karibdis zeuden itsasartetik igarotzea erabaki zuen. Karibdis barkuak zurrupatzen zituen zurrunbiloa zen eta Eszila aldiz isasgizonak jaten dituen herensugea³⁹. Itsasarte hau Messinako itsasarte izango litzateke bai autore klasikoen⁴⁰ zein garaikide gehienek esanetan, Sizilia iparraldean, Italiako penintsulako hegoaldeko lurmuturraren mugan (Karibdis siziliako kostaldeko puntua, bertako korrante indartsuak direla eta, Eszila aldiz iparraldeko puntua). Hala ere badaude beste kokagune posible batzuk, Lefkas kanalean Anbraziako golkoaren sarreran, esaterako (ik. Taula).

Behin ihes egitea lortuta Helios eguzki jainkoaren uhartera iritsi ziren, Trinazia izenekoa; eta Zirzek esana zion Odiseori bertan Heliosek zituen behiak ez hiltzeko. Baina entzungor, bere itsaskideak sakrifizio batzuk egin eta jainkoen haserrea piztu zuten, ondoren itsasoratu zirenean Odiseoren barkua soilik utziz urgainean (berak ez baitzuen sakrilegio hori burutu)⁴¹. Jarraian Odiseoren itsasontzia berriro Eszila eta Karibdisen itsasartetik igaro arazia izan zen⁴². Kasu honetan ere, autore klasikoek⁴³ eta garaikideek bat egiten dute Sizilian kokatzerakoan, nahiz eta garaikideek aukera ezberdinak zabaltzen dituzten (ik. Taula).

Heroi homerikoa bere itsasontzian bakarrik zihoala, bederatzi egun eta beste horrenbeste gaueko haize bulkada jaso zuen jainkoen erantzun gisa Ogi-gia-ra heldu arte, bere istorioa kontatzen hasten den unean, Kalipsoren uharte. Zein noranzkoan dagoen jakitea ez da erraza, baina uste da Eszilatik ekialdera eta iparralderantz bultzatuko zuela

³⁵ Garaiko greziarren ustetan, mundu kontinentala bertan amaitzen zen eta hortik aurrera zegoen bakarra itsasoa zen.

³⁶ Hom. Od. 12,1-17.

³⁷ Hom. Od. 12,38-55.

³⁸ Strab. 1,2,12-13; Ptol. 3,1.

³⁹ Hom. Od. 12, 56-126.

⁴⁰ Thuc. 4,24,5; Plb. 32,2; Just. Epit. 4,1; Verg. A. 3,548; Ov. Met. 14,24-25; Strab. 1,2,16; Strab. 1,2,9; Ptol. 3,1.

⁴¹ Hom. Od. 12,271-419.

⁴² Hom. Od. 12,420-446.

⁴³ Just. Epit. 4,2; Plin. Nat. 3,8.

haizeak, aipaturiko azken haizea hegoaldekoa delako⁴⁴. Autore klasikoek⁴⁵ Gozo uhartean kokatzen dute, Malta alboan. Garaikide batzuk ere bai, baina badira alternatibak (ik. Taula), eta kokagunea lurrean ez duela defendatzen dutenak ere bai.

Zazpi urteren ondoren Odiseo aske joaten da uhartetik Zeusen baimenarekin, Ateneak eskatuta, heroia babesten duen jainkosa. Kalipsok eraikitzen lagundutako txalupa batean hamazazpi egunez nabigatzen ibili eta gero, Poseidonek txalupa hondoratu eta Eskeria uhartera, Feaziarren lurraldera, heltzea lortzen du. Nausikaa printzesak aurkitu eta jauregira eramaten du erregearen aurrean bere bizipenak kontatzeko. Autore klasikoek⁴⁶ zein gainontzekoak, salbuespenak salbu (ik. Taula), Korfu joniarraren itsasoko uhartearekin lotzen dute (grezieraz *Kérkyra* dena).

Azkenik Feaziarrek lagunduta Odiseo Itakara heltzen da. Bertan heroiak bere emazte Penelope bereganatu, agintari izateko zain dauden ezkongai adeigabeei gailendu eta bere erreinua berrartu nahiko du, bere bizipenekin mundua liluraturaz. Itakaren existentziaren eta balizko kokapen geografikoaren inguruan oraindik eztabaidak bizi bizirik dirau. Gehienak Itakaren iraganeko existentzia onartzen duten arren, nahasmena sortzen da honi kokapena ematerako orduan. Antzinetatik joniarraren itsasoko izen berdina duen uhartearekin identifikatu izan da, baina zenbait aditu garaikidek eginiko ikerketek aurkakoa ondorioztatu dute; *Odisean* eginiko deskribapenak ez baitu topografikoki eta geografikoki kointziditzen⁴⁷. Guk ez dugu gai hau sakonki landuko baina ikerketa gai interesgarria dela frogatua dago; gure aburuz, joniarraren itsasoko uharte historiko bat izan zela kontsideraturaz, gehien moduan, egungo Itakaren kokapenarekin burutuko dugu interpretazioa.

Odiseok igarotako puntu geografiko-mitiko ezberdinez gain, poema homerikoaren geografia aberasten duten zenbait herrialde ere aipatzen ditu Homerok, adibidez etiopiar, egiptiar eta feniziar herriak. Herri hauei emandako deskribapenek eta erakutsitako ezaugarriek, antzinateko kosmobisioaren testuingurua ulertzera eraman gaitzakete.

⁴⁴ Hom. Od. 12,427.

⁴⁵ A.R. 4,557-59; Strab. 7,3,6; Plin. Nat. 3.15; Plut. De Faciae, 26.

⁴⁶ Thuc. 1,25; Apollon. 4,988-992.

⁴⁷ "Habitó en Ítaca, que se ve a distancia: en ella está el monte Nérito, frondoso y espléndido, y en contorno hay muchas islas cercanas entre sí, como Duliquio, Same y la selvosa Zacinto. Ítaca no se eleva mucho sobre el mar, está situada la más remota hacia el Occidente (...) es áspera, pero buena criadora de Mancebos". Hom. Od. 9,19-26

Etiopiar herria munduko mutur batean bizi da eta bitan zatitzen da⁴⁸. Testuak dioenaren arabera, baliteke mendebaldeko eta ekialdeko multzotan banatuak izatea, eguzkiaren ateratze eta sartzearen kopia bat izatea lurlean, Etiopiako Erreinuarekin estuki lotua dagoen elementua (Molina Marín, 2010; 52). Baliteke munduko bi muturren gauzatzea izatea: ekialdea eta mendebaldearena, polaritate bat alegia, lurlean kokapen zehatza ematen diote arren⁴⁹ Mediterraneo ardatz horizontalaren erdian. *Odisean* Etiopiak testuinguru zehatzagoa erakusten du, Menelao eta Telemakoren arteko elkarrizketa batean, lehenengoak esaten dio Egiptotik Kretara zihoala pasa zela euren herritik⁵⁰ eta ondorioz jakin daiteke Kreta hegoaldean daudela, feniziarren eta egiptiarren bizilagun (Brioso Sánchez 1994, 199).

Egiptok lanketa handiagoa jasotzen du. Menelaok eta Helenak bisitatu zuten herrialdea izan zen non opari garrantzitsuak jaso zituzten, horien artean, sendagarri gisa erabiltzeko droga bat⁵¹. Herodotok beranduago⁵² bertako medikuen fama onaz eta garrantziaz arituko da (baliteke beraz, Egiptoko kostaldea ezagutzea). Faros-eko uhartea ere aipatzen du Menelaok, bertan gelditu baitzen mugitu ezinda jainkoei sakrifizio bat ez eskaintzeagatik⁵³. Egiptoren azken aipamena, Eumeo urdezainari egingo dio Odiseok. Beraz nahiz akatsak izan, bazekiten ibai horren garrantzia Egiptoren ongizaterako. Kostaldea ezagutzen zuten baina bestalde ez du piramideen inguruan daturik aipatzen, adibidez.

Feniziarrek dira *Odisean* aipatzen diren herrialde ez-mitikoetatik azkenekoa (hauez gain, Erenbotar herria ere aipatzen du behin, datu asko eskaini gabe). Poema homerikoetan *phoínikes*, “purpura gizonak”, bezala dira ezagunak eta eurak merkataritzan jarduten zuten tindagaiari egiten dio erreferentzia, moluskuetatik ateratzen zutena. Batzuetan aldiz sidonio bezala identifikatzen dituzte⁵⁴. ulertzekoa da izenez aldatze, garai hartan Tiro, Sidon edota Biblos hiriak independenteak baitziren euren artean eta zonaldearen kontrola eskuratzeko borrokan zebiltzan. Aurretik, *Iliadan* aipatua jada, bazekiten urregintzan eta nabigazioan adituak zirela. Baina *Odisean* are informazio gehiago azaltzen da: euren izaera maltzur eta harraparia nabarmentzen

⁴⁸ Hom. Od. 1,23.

⁴⁹ Hom. Od. 4,83.

⁵⁰ Hom. Od. 4, 84-4.

⁵¹ Hom. Od. 4,126-133

⁵² Hdt. 2, 84.

⁵³ Hom. Od. 4, 351-359.

⁵⁴ Hom.Od. 4, 84; 6, 290; 15, 618.

dute⁵⁵. Greziarrek izan zuten ikuspuntu deskriptibo honen aldaketa bi nazioen arteko lehiakortasun puntu goren batean iritsiko zen, euren komertzio bideak maila gorenera iritsi zirela; data beraz poema homerikoen ahozko konposizioa baina beranduagokoa izan daitekeela iradoki dezakete (Molina Marín 2010, 54).

3.1. KARTOGRAFIA

Homeroren *Odisea* mapa historiko bat egiteko subjektu guztien artean, zaharrenetarikoen artean sartzen da. Gaur egun arte 80 teoria baina gehiago idatzi dira *Odisearen* geografiaren inguruan eta 30 inguru plasmatu dituzte mapetan. Autoreen artean, arlo ezberdinetako adituak aurki daitezke: *Odisearen* itzultzaileak, bestelako arlo klasikoetan adituak, arkeologoak, geografiaren inguruko historialariak, geografoak, kartografoak, historialariak, marinelak, zientzialariak, legelariak, etnologoak eta bestelako zaleak (Wolf 2004,309-310). Horietatik mapa batzuk aztergarriak dira euren hipotesiekin ados egon edo ez, beste batzuk aldiz erabat lekuz kanpo daude, Florida edota Txinan kokatuz kontakizuna. Eredu askoren artean, *Odiseako* guneak kokatzeko mapa geografikoak erabiltzen dituztenak daude alde batetik, eta Homeroren munduaren mapa marrazteko kontakizun epikoan oinarritzen direnak bestetik.

Aurkitu den Odiseoren bidaiak interpretatzen dituen maparik zaharrena Abraham Ortelius kartografo eta humanistak eginikoa da 1597an, eta antzinateko autoreek eginiko guneen identifikazioez baliatu zen (ik. 1. mapa) berau egiterakoan. Pierre Duval frantziar geografoak 1677an eginiko mapa ere garrantzitsua da, bera izan baitzen lehena ibilbide guztiko guneak mapan kokatzen, ez soilik Odiseoren bidaikoak. Hau burutzeko Duvalak bai geografia datuak, bai testuaren argibideak moldatu behar izan zituen (ik. 2. mapa). Mapen alorreko hirugarren aurrerakuntza Johann Heinrich Voss alemaniarrek ekarri zuen, Homeroren testuen itzultzailea izan zenak. 1793an burutu zuen bere mapa (ik. 3. mapa), eta mapa honetatik abiatuta mapa gehiago sortuko dira etorkizunean. William E. Gladstone, beranduago Britainiako Lehen Ministroa izango zenak, 1858an bere mapa argitaratu zuen (ik. 4. mapa). 1898an autore anonimo batek, Eumaeus ezizena zeukanak, mapa benetan berezia atera zuen argitara. Bertan Odiseok Afrika guztia inguratu eta Amerika ere deskubritu zuela iradokitzen zuen. Ezagutzen den kopia bakarra Britainiar Liburutegian dago (ik. 5. mapa).

⁵⁵ Hom. Od. 14, 288-95; 15, 415-419.

1927 eta 1929 bitartean Victor Bérard klasizista, editore eta itzultzaile frantses ezagunak Odiseoren bidaien inguruko liburu garrantzitsu bat publikatu zuen. Lehenengo aditua izan zen Mediterraneoko bidaia lehen pertsonan gauzatu zuena, bere teorien inguruan sakonago ikertzeko; nahiz eta ahultasun batzuk erakusten dituen (ik. 6. mapa). 1982an National Geographic Magazine enpresak “Homeroren Mundua” (*World of Homer*) izeneko mapa bat plazaratu zuen. Mundua antzinako greziarrek Homeroren garaian ikusiko zutenaren antzekoa da, baina bidea ez dago markatua eta uharte asko asmatuak dira (ik. 7. mapa). Beranduxeago Tim Severin, esperientzia handiko marinela irlandarrak Grezia inguratzen zuten itsasoetan zehar ikertzen ibili ondoren, bere mapa propioa atera zuen 1987an (ik. 8. mapa).

Armin Wolfek 1968an bi mapa plazaratu zituen, nahiz eta 1990 eta 1987ean birpasatuak geratu azkenean, oso interesgarriak biak. Lehena, *Odiseak* eskaintzen duen itsas informazioarekin eginiko “norabide-eskema” bat da, mapa geografiko batean aplikatu gabea. Hurrena aldiz eskema hori Mediterraneoan aplikatzearen saiakera bat da. Oso teoria interesgarriak plazaratu zituen eta bigarren mapan feaziarren uhartera, Eskeria, kokatzeko arazoak ikusten ditu, azkenean egungo Calabria izan daitekeela justifikatuz bere lanean (Wolf 2004, 325-326) (ik. 9. Mapa eta 10. mapa).

Jarraian datorren atalean azaltzen saiatu garen bezala, Homerok Mediterraneo itsaso inguruko abentura heroikoen hainbat kondaira hartu zituen eta errealitate eta fantasiaren arteko nahasketa bat landu zuen bere lanetan. Gure *Odisearen* mapa errealitate geografikoaren eta fikzio poetikoaren arteko nahasketa bat izan beharko lukeela argitzea izango da hemendik aurrerako lanaren ardatz nagusia.

4. ODISEA ERREALITATEAN BARRENA

4.1. ANALISIA

Gaur egungo ikuspuntutik zaila suertatzen da imajinatzea nola ikusiko zuten mundua, mundu geografiko-mitikoa, greziarrek. Nabigazioaren inguruan utzitako garaiko aztarna urriak, praktikotasunean oinarritutako literatura periplografikoak eta merkataritza itsasbideak gordetzen zituzten dokumentu eskematikoek osatzen dute. Bestalde, Brioso Sánchezen ustetan, bidaia legendarioak narratzen dituzten kontakizun klasikoetan agertzen den geografia mitikoa kolonizazio prozesuaren testuinguruan ulertu behar da; lotura hertsia baitaude. Honekin lotuta, aski ezaguna da garaiko greziarren izaera itsastarra; kostalde eta uharteren inguruan biratzen zuen euren munduak eta kontinente barneko lurralde eta

biztanleek –kasu gehienetan- ez zuten kostaldeak adina interesik. Hori dela eta, Europa eta Afrikako barne lurren inguruan informazio nahasia maneiatzen zuten.

Greziarrentzat Mediterraneo, zehazki Egeo itsasoa, munduaren erdigunea zen; eurak zeuden unibertsoaren erdian. Mediterraneo kostaldetik haratago, eurak iristen ez ziren lekuak sinplifikatu egiten zuten, emandako balioa txikiagoa izanik. Gisa hontara dikotomia bat bilatzen zuten euren eta besteen artean; ikuspuntu propioetik egindako interpretazioek noski kanpotarrak arrarotzat jotzen zituzten, garrantzitsuena dena, kontrastea sortuz (Brioso Sánchez 1993, 207-210).

Honi atxikita *Odisea* lanean aspektu geografikoak, orduko literatur lanek bezala, bigarren mailako garrantzia duen elementu bezala ulertu behar dira. Ondoren ateratzen diren ondorioak, behin datuak sistematizatzen direnean, egilearen abstrakzio huts bezala interpreta daitezke. Garaiko geografia beraz tentuz aztertu behar da, mitoekin eta garaiko errealitate sozialarekin nahastuta ager daitekeelako (Brioso Sánchez 1993, 196). Honez gain mito hauen inguruan ez da ahaztu behar guk eredu bakarra maneiatzen dugula, jada sistematizatua duguna, baina mitoek malgutasun handia izango zuten espazio eta denboraren arabera, guk “mitologiaren eskuliburuko bertzio bakarra maneiatzen dugun bitartean” (Konstan 1986, 90).

Kolonizazio garaian aurretiko narrazioa izan edo ez, ziurra dena da errealitatea eta fikzioa etengabe nahasten direla Odiseoren abenturetan. Bidaiako lurraldeak aipatzen direnean, Troia, Lazedemonia edo Mizenas bezalako lurraldeak esaterako errealak dira, baina behin heroiak Maleako kaboa (Lakonia) zeharkatzen duenean Zikondarren uhartetik etxera itzultzeko, fikzioa jaun eta jabe egiten da bidaiaren mitikoaren narrazioan. Mitologikoak diren herriak agertzen hasten dira, ziklopeak, lotofagoak, lestrigondarrak, etab. talde etniko hauek iriste oso zaileko lekuetan daude, kokagunea asmatzeko oso zailak diren lekuetan alegia; Zirzeren uhartea, Kalipsorena, Heliosena edo Ziklopearena bezala. Uharte batek igorri ohi duen izaera isolatu eta aldenduak agertoki ezin hobe bat sortzen du *aedoak*, poetak edota filosofoak euren helburuak bertan plasma ditzaten: greziar hiritarren bizimodutik ezberdintzen diren gizarte ereduak. Kontrako ereduak adibideak badauden arren (Feaziarren kasu), zenbait pertsonaiak –Polifemok esaterako- zibilizazio, hospitalitate, “ogi eta ardoaren” falta erakusten dute, greziar baten antitesia hain zuzen (Gabba 1989, 4-8).

Honi jarriki esan, pasarte ezberdinen artean aurkitzen diren distantziak erlatiboak direla. Helburuaren muina, gertaera horren kokaguneari egunerokotasunetik kanpoko itxura bat ematean zetzan eta batez ere, urrunean isolatua irudikatzea. Paraje mitikoari zor

zaion estatus berezia ematen zaio eta hainbat ezaugarri ikusi daitezke: adibidez, “ezinezko pasabidearen” fenomenoaren ematen da sarri, Eszila eta Karibdisen kasuarekin bezala, behin igarota, igarobidea normalizatu egiten delarik (Eliade 1975, 110-111). Bestalde, “neutralizazio meteorologikoa” ematen da, denboraren neutralizazioa ematen delako: leku mitiko hauek, betiereko argia edo iluntasuna izango dute, lestrigondarren eta zimeriarren kasuan bezala. Gogoratu behar da, leku mitikoak mundu honen parte zirela: *Odisean* barku berdinak, ezaguna zen Egeo itsasotik zein ezezaguna zen itsasotik nabigatzen zuen; Ozeanotik alegia.

Jada antzinatean ere Odiseok Troiatik feaziarren uhartera eginiko bidaia -hots, narrazioaren mundua- legendarioa zela kontsideratzen zuten askok. Gaur egun, aditu asko Odiseo Troiatik Itakarako itzuleran igarotako harkaitz txikiena ere identifikatzen saiatu izan dira, baina Homeroren narrazioa beste mundu bat da. Berak “erreal” gisa ikusten zuena, gizakiak lurra landu eta garia ekoizteko ekintzarekin lotzen zuen, ondoren ogia egiteko (Vidal Naquet, 2001: 16). Telemakok esaterako, mundu errealean zehar soilik bidaiatzen du: Itakatik Pilosera, Nestor agureak erreinatzen duen lekura, eta ondoren Espartara, non errege-erreginak Menelao eta Helena diren.

Bestalde, Odiseoren bidaiaren, hasiera puntua den Troia mundu erreala kontsideratzen da, baita zikondarren herria ere Trazian. Grezia ekialdeko kostaldean nabigatu ondoren, Malea kaboa pasa eta ekaitz batek harrapatzen ditu Odiseoren gizonak eta hamar eguneko urakan honek mundu erabat ezberdinerara eramango du protagonista, alegiazkora, gizagabetasunerakora. Gariaren laborantza irizpide erabat garrantzitsua bilakatuko da: ezaguna den bezala, mediterranearen trilogia mahastiak, olibondoak eta gariak osatzen du; lehenengo bi landareak mundu basatian, gizakiaren esku hartzerik gabe aurkitu daitezke, baina ez garia. Odiseok bere bidaiako etapa ezberdinetan gizaki hilkorrez gain, gizateriaren gaindi edota kanpo dauden pertsonaiekin egiten du topo. Horren adibidea *Hadēs*, *Ἅδης*, azpimunduan dago; heroi homerikoa ahari beltz bat sakrifikatu ondoren iristen den lurraldea⁵⁶. Bertan hildakoek ez dute ogia jaten, odola edan baizik; hau izango da Odiseo gizatasunetik gehien aldentzen den pasarte (Vidal Naquet 200, 17).

Kontzeptu hauek ez dira geografikoak baina Grezia arkaikoan zegoen munduaren ikuspegia ulertzeko baliagarriak izan daitezke; jokabide-arau jakin eta definitu batzuk betetzen zituztenei soilik deitzen zitzaielako “gizaki”. Uhartearen kontzeptuak bestalde, berezko duen isolamendu eta urruntasunak justifikatu egiten du ‘Urrezko Aro’ garaiko

⁵⁶ Hom. Od. 11,23

mundua, Heroien Mundua, berau irudikatzeko errazagoa suertatuz eta sinesgarriagoa bihurtuz poetaren lana (Gabba, 1991: 107). Balioa duen fikziozko kontakizun orok zenbait estrategia eduki beharren ditu barnean, irakurle edo entzulearen konfiantza ziurtatzeko. Zehaztugabe eta urruti, munduaren mugan, dauden kokalekuak ezartzea izan daiteke estrategia bat, non inguruan gertatzen ez dena egia izatea posible bihurtzen den (Molina Marín, 2010: 55).

Kosmosaren inguruan zuten antzinako kontzeptuak zenbait gune bereziren kokagunearen inguruko polemika berpizten laguntzen du etengabe. Zimeriarren eta Lestrigondarren kasua, Zirze eta Kalipsoren uharteak, alde handia dago mitologikoki, errealitatea ulertzeko eman dezaketen informazioaren arabera, edo gune geografiko soil bat bezala interpretatzerako garaian. Adibide hauetan eguzkiaren mugimenduari jokatzeko da, argitasun eta iluntasunarekin, lehen esan bezala greziarrek itsasoa ulertzeko giltzetako bat izanik berau.

Baliteke greziarrek jada jakitea kokaleku baten latitudea elementu garrantzitsua zela eguzki argiaren gutxitze baten aurrean. Hala ere, *Odiseako* poetak ez du zehazten zein lekutan bizi ziren zimeriarrak⁵⁷. Badakigu beranduagoko autoreengatik greziarren begietan zimeriarrak Itsaso Beltzaren iparraldean kokatzen zirela, Eszitek kanporatu zituzten arte⁵⁸. Herrialde historiko bat izan arren poetak anomalia bat sartzen dio ezaugarritzeko eta hala lehen esan bezala, gizakiengandik ezberdintzeko. Oinarrizko elementu bat –“eguna” izan daitekeen bezala- ez dutenez, argi ezberdintzen dira gizaki arruntetatik. *Odiseako* herriaren eta herri historikoaren arteko harremana lainotsua da gaur egun arte behintzat, eta beraz, izaera mitikoa izatera gerturatzen dira.

Lestrigondarrak berriz, zimeriarren aurkakoak dira. Zimeriarrak betiereko iluntasun batean bizi baziren, Lestrigondarrak “gaua eta eguna nahasten diren” zonalde batean bizi dira. Isolamendu eta bakartasun testuinguru horretan lehen aipatutako “neutralizazio meteorologikoa” ematen da, ingurunea are eta gehiago egokituz. Zimeriarrak eta lestrigondarrak horrela munduko ardatz bat eratzen dute, non eguzkiaren sortalde eta sartaldeak munduko mugak eta puntu kardinalak ezartzen dituen (Anakassis, 2004: 222).

Antzerakoa gertatzen da Ogigia eta Eea uharteekin. Ogigia, Kalipsoren uhartea, jainkotiarren eta gizatiarren artean dago kokatua, munduaren amaieran –*peirata*- edo “itsasoaren zilborrean”, *omphalós thalásses*⁵⁹. Kalipso Atlasen alaba da, Lurra eusten duen

⁵⁷ Soilik “confines del Océano de profunda corriente” aipatzen du, Hom.Od. 11,13-15.

⁵⁸ Greziarrentzat Itsaso Beltza munduaren mugetako bat zen

⁵⁹ Hom.Od. 5.100.2

Titana eta mendebaldean bizi da, Kalipso leku berdinean egonik⁶⁰. Bestalde Eea uhartea, Zirzeren bizilekua, ekialdean aurkitzen da⁶¹ egunsentiaren erreinuan, non Odiseo eta bere gizonak ez dakiten non dagoen eguzkiaren irteera eta sarrera⁶². Zirze, Helios eta Perseren alaba da eta euren erreinua ekialdean dago. Odiseorekin atxikitzen saiatu ziren bi emakumeak beraz munduaren amaieran bizitzeagatik ezaugarritu ziren. Greziarren lehen mugak sinbolizatzen dituzte, euren artean erdi puntu zehaztugabe bat utziz, Odiseo heroiaren aberriak beteko zuena.

4.2. HOMEROREN PERSPEKTIBA

Ikastunek Homero –edo lan literario honen autorea- Jonia kolonia grekoan kokatzen dute, eta Eolia koloniarekin batera bere biziaren gehiengoa behintzat bertan igaroko zuela azpimarratzen dute; eta darabilen dialektika, oinarri eolikodunean txertatutako estruktura joniarrak gisara definitua dago (Freely 2015, 33). Haratago joanda, bizileku zehatza asmatzeko saiakera ugari egin diren arren ezin izan da helburua burutu, askok Meles ibaiaren alboan kokatzen duten arren, Esmirnako golkoan. Jonia bere merkatu aberats eta hiri garapen eredugarriagatik da ezaguna eta jakin badakite, joniarrak Egiptorekin harremanak zituztela eta kostaldea bederen, ezagutzen zutela (Martínez 2001, 99).

Heleniar penintsula bera, azpigaratuago eta kaos egoera erlatibo batean, doriarren inbasioen ondorioak pairatzen ari zen K.a. XI. mendetik, zeintzuk Egeoko kultura itzali zuten; testuinguru horretan Joniak kontserbatu zuen aurreko zibilizazioaren izpiritua, eta mundu horretan kokatu behar dugu Homero. Jonia mendebaldeko literaturaren sehaska izateaz gain, filosofiarena ere bada, kosmologia joniarrak markatu baitzuen ondoren Grezia osoan garatuko ziren filosofia mugimenduen hasiera puntua. Hala ere, Homerok erakusten duen gizartea ez da kosmologia horretakoa, baizik eta aitzinako garai bat irudikatzen nahi izan zuen, primitiboagoa (Copleston, 2011: 15), jarraian ikusiko dugun bezala.

4.3. HOMEROK ITXURATU NAHI ZUEN MUNDUA

Gaur egun badakigu gure aroa baina hiru milurteko lehenago, 2200 eta 2000 artean, Grezia populazio berri batek inbaditua izango dela eta euren hizkuntzatik eratorriko dela ondoren greziera izango dena. Kretako uhartean garatu zen zibilizazio minoikoaren eraginpean, populazio honek kultura propio bat garatuko du, K.a.1600 urtetik aurrera

⁶⁰ Hom.Od. 10, 190-2

⁶¹ Hom. Od.12, 1-4

⁶² Hom. Od. 10, 190-2.

antzemango dena, arte zein azpiegitura ezberdinen bidez. Zibilizazio hau K.a.1200 urte inguruan desagertuko da Mediterraneo ekialdeko krisi handiaren ostean, “Itsasoko Herrien” inbasioen ondorioz.

Mizeniar kultura hau ote da Homerok deskribatzen duena? Adituak ez dira ados jartzen. Argi dago Homerok nola *Iliadan* hala *Odisean* gizarte oso zahar bat irudikatu nahi zuela. Izendatzen dituen leku asko Grezian aurkitzen dira, Kretaren kasu, bana berarentzat mundu ezberdin bat dira, misteriotsua (Vidal Naquet 200, 14).

Moses I. Finley historialari entzutetsuaren ustetan, Aro Mizeniarrarekin eginiko loturak alboratu egin beharko lirake eta dio Homerok Aro Ilunaren hasierako garaian kokatzen zuela lana, K.a. X. eta IX. mende artean. Nahiz eta lan osoa anakronismo eta elementu zalantzagarriez desitxuraturua egon, ez zaigulako autorearen garai eta testuinguruaren berri handiegirik iritsi gaur egun arte, hala ere ez ziren aldaketa garrantzitsu asko gauzatuko eguneroko bizimoduari dagokionean (Finley 1967, 82). Brontze Aroko zibilizazio bat (mizeniarren kasu) eta K.a. VIII. mendekoaren arteko nahasketak begi-bistako artifizialtasun bat izango luke hasiera hasieratik, eta ezingo luke analisi sozial garatu bat sostengatu (Finley 1967, 83). Autore klasikoa galdutako Urrezko Aro bat deskribatzen ari zenaren sinestun zenez, errealitatearen eskala ahalik eta gehien amplifikatzen saiatu zen, zehaztasun urria izanik ezaugarri nagusienetakoa.

K.a. 800.urterako merkatari greziarren presentzia Ekialde Hurbileko Levanten bazeudela frogatua dago, baina ez da horien berririk azaltzen Homeroren idazkietan. Baliteke beraz, Aro Ilunaren teoriara gerturatzea horrela. Bestalde, ehorzketen inguruan ere giltzarri izan daitekeen erantzun bat aurki daiteke. Mizeniar munduan euren hildakoak lurperatu egiten zituzten salbuespen gutxirekin, baina ondorengo garairako, K.a. 1050 urtetik aurrera, errausketa metodo nagusia bilakatu zen (Finley 1967, 84). Ikusi daiteke beraz, nola Homerok seguruenik gizarte post-mizeniar edota aurre-garaikide bat irudikatzen ahalegindu zen.

4.4. MAPA PROPOSAMEN BERRIA

Bildutako datu eta interpretazioetan oinarrituta dagoen mapa honetan (ik. 12. mapa), lehen aipatutako Homeroren geografia horizontalaren egituraketa plasmatu nahi izan dugu. Nabaritu daiteke, nola *Odisean* oinarrizko lau “geografia” mota bereiztu daitezkeen: geografia erreal bat, Lurrean koka daitekeena eta izen ezagunak dituen⁶³;

⁶³ Lazedemonia, Troia, Zikondarren lurraldea, Egipto, feniziarak eta etiopiarak; hauez gain Zitera, Kreta, Sizilia, Argos, Mizenas, etab.

geografia erreal bat baina egun aurki ezin daitekeena, mendeak pasa ahala horien erreferentzia historikoak galdu direlako edo izenen nahaste ezberdinengatik⁶⁴; geografia mitiko bat, asko kokatzen saiatu arren oinarri guztiz ezegonkorrean eginiko baieztapenak direnak⁶⁵ eta leku mitiko bezala kontsideratzen ditugunak; azkenik, badago munduan koka ezin daitekeen geografia ere, garaiko kontzeptu kosmologikoetatik eta geografian inguruan antzinako greziarrek zuten ezagupen mugatuaren ondorioz⁶⁶

Pentsatzekoa da autorea joniarra izanda, K.a. VIII. mendean oraindik Greziaren batasuna ez egonda eta beharrizanak ere oraindik kuriositatea piztuta, Egeoko itsasoa gurutzatu ez izana eta beraz, Grezia mendebaldeko kostaldea ezezagun egitea. Ez gai izateko zehaztasunez erantzuten non kokatzen zen Agamenon Erreinua, Piloseko Erreinua edota Meseiaren existentzia (Chadwick 1993, 235); ezagunak izan arren. Grezia kontinental inguruko uharteen artean Itakarena nabarmentzen du gainera, *Iliadan* bi aldiz bakarrik izendatua izan arren, *Odisean* 81 pasartetan agertzen baita (Suárez de la Torre 1973, 221).

Jonia erdigune bilakatuta lau zirkulu zabaltzen dira mapan zehar –hedapen ezberdina dutenak- eta bakoitzak “interpretazio esparru” bat mugatzen du. Horrela, lehen zirkuluak (txikienak), autoreak ezagutu eta kontrolatuko lukeen eremua hartuko luke eta bertan dauden *Odiseako* puntuak errealak eta kokagarriak dira. Bigarren zirkuluak autoreak entzunak baina guztiz ezagunak ez dituen puntuak kokatuko dira; horietan dauden puntuak benetan existituko ziren, gero ikusiko dugun bezala, autore garaikideek emandako kokaguneak salbuespen izanik. Hurrengo zirkuluak aldiz heroiaren bidaiaren gehiengoa hartuko luke, hau da, bidaiak mitikoko puntuak. Homerok ez zuen Mediterraneo urruneko ez itsaso ez kostaldea kontrolatzen, eta beraz lurraldeak eta kokaguneak ondorioztatutakoak dira, ondorengoko autoreen interpretazioetara mugatuz kokapena. Azkenik, azken zirkulu handiak, greziarren munduz haraindiko kokaguneak hartuko lituzke, hala nola Ozeanoa eta Hades, batzuk azken hau kokatzen duten arren, gehiengo bat kokatzearen aurka azaltzen delarik.

Protagonistaren ibilbideko lurralde ezberdinei kokapena ematerako orduan, autore garaikideek gaur egungo ezagupen aurreratuaren abantailaz jokatzeko dute, Homeroren garaiko eta autore klasikoaren garaiko adituekin alderatuta. Mediterraneo kostaldeko zirrikiturik txikiena ere aztertuta, beste logika espazial batekin ikusten da *Odisearen*

⁶⁴ Itaka eta Pilos; Tafos, Temesa, etab.

⁶⁵ Lotofagoen uhartea, Polifemoren uhartea, Eolia uhartea, Telepilo uhartea, Eea uhartea, Sirenen uhartea, Eszila eta Karibdis, Trinazia uhartea, Ogiia Uhartea eta Eskeriaren uhartea.

⁶⁶ esaterako, Ozeano ibaiaren kontzeptua edo Hades azpimundua.

dokumentua eta beraz asko, nahiz eta autore klasikoen aurka joan, Balkanetako mendebaldeko kostaldean kokatzen dituzte hainbat gune. Autore garaikide ugari, bidaiari mitikoaren puntuak kokatzearen aurka agertzen dira eta noski, jada errealak direla dakigun zonaldeen artean (Itaka, Pilos, Esparta, etabarren kasu) ezartzeak, polemika pizten du. Autore klasikoei begira, zeintzuk batzuk Mediterraneo osoa itxuratzeko gai izan ziren, Eskeria soilik kokatzen dute errealak diren puntuen artean; eta salbuespen horrek ere badu bere arrazoia.

Eskeriaren kokapena salbuespen gisa nabarmentzen dela ikusi daiteke proposaturiko mapan, bertan autore garaikideez gain, autore klasikoek ere penintsula balkaniarraren mendebaldeko kostaldean kokatzen baitute. Beraz Eskeriaren existentziak eztabaida sortzen du, garaikide zein klasikoetan, ez baitago besteak bezain “aldenduta”. Batzuek Homeroren garaian greziarrek eginiko mendebalderanzko kolonizazioarekin erlazio zuzena daukala defendatzen dute. Ezin da ziurtasunez jakin Eskeriako lurraldea errealia izan zen ala ez eta soilik kokagunea aurkitzean tematuak daudenak ematen diote posizio ezegonkor bat; jada gaur egun Mediterraneo kostaldea erabat ezagututa ez da “horren zaila” alegiazko kokagune bat ematea. Jakina dena da, feaziarren mundu hau errealitateaz haraindikoa dela, bai behintzat *Odiseako* narrazioaren barnean, fantasiako eta benetako munduaren arteko zubi lana egiten baitzuen lurraldeak Odiseoren ibilaldian. Feaziarren errealitate aztergarri bat monarkia da esaterako, Itakaren estruktura antzekoa erakusten duena. Bestalde, Odiseoren munduko organizazio soziala ezegokia zen Homeroren garaiko *Poleis*-en funtzioekin alderatuta (Finley 1967, 83).

5. ONDORIOAK

Ez dira maiz ikusten Homero bezalako irudi literario garrantzitsuak. Bere herriaren nazionalitatearen sinbolo nagusia izan zen, euren historiako lehen pausoen irudia eta panteoi propioaren eraikuntzan erabakigarria. Platonen ahotan, greziarrek irmoki sinesten zuten Homerok Grezia osatu zuela; bera irakurritz ikasten baitzen gobernatzen eta gizakien negozioak zuzentzen eta ez omen zegoen bere bizi arauetz jarraitutako agintaldi baina hoberik⁶⁷.

Homero lehen esan bezala poeta bat zen, baina ez gure ideien parametrotan sartzen den poeta pertsonifikatua, izan ere mito eta legenden narratzaile bat zen. Jakin badakigu, mitoen formakuntza mende asko atzera hasia zela jada, beti ere ahoz espresatuz eta giro zeremonial batean. Narrazioa burutzea balio goreneko ekintza zen eta funtsezko osagaia

⁶⁷ Plat. Rep 606e.

akzioa zen; errepresentazio sinbolikoak, gertaerak edota burutazio dinamikoak kontatzea (gerrak, abenturak, giza etapak...). Noski, ez dago narraziorik entzulerik gabe eta hauek ere beren papera bete behar zuten, hau da, imajinazio mitikoaren partaide zirenez, sinestearen akzioa burutu behar zuten. Erakutsitako objektuaren errealtatea sinetsi ezean, kontaketak oinarria galduko luke (Cassirer 1963, 117). Greziarrek ez zuten egia gisa interpretatzen Poseidonek Odiseori bere etxe Itakara iristea galerazi ziola, edota Zirze bezalako sorginek gizonak zerri bihurtu zituela, etab. alegoriak ziren, parabolak, baliteke inkontzienteak piztutako ametsak, baina gauza guztien gainetik, analisi garatuak eta barne ikuspen etiko eta psikologikoak ziren.

Ez da ezagutu historian mitorik gabeko gizarterik, eta adituek ea hori posible izango litzatekeen ere galdetzen dute. Gizarte baten eboluzioa, zibilizazio garatu batetara iritsi artekoa, euren mitoen gaineko dominazio eta kontrolaren arabera izan ohi da; eta horretan greziarrak apartak ziren. Cassierrek biltzen duen bezala, greziarren deskubrimendu handiena Sokratesen hitzetan, gizakia “galdera arrazional bat eginda, erantzun arrazional bat eman dezakeen izakia” izatean zetzan (Cassier 1963, 21).

Homerok greziarrek euren mitoen gainean izandako domeinuaren lehen etapa ordezkatzeko du; poema aurre-grekoak dirudite eta zentzu zabal batean, munduaren antolatzailea ere bada, zeinetan gizakia eta jainkoak naturarekin harmonizatzen dituen; ildo horri jarraiki, urteak pasa ahala helenismoaren maila gorenera iritsiko da harmonia hori. Europar historia greziarrekin hasi bazen, berdina esan daiteke greziar historia Odiseoren munduarekin hasi zela (Finley 1967, 11).

Mythos eta *Logos*-aren arteko talka eman zen. Homero eta Hesiodo buru zirela mitoak hasieran egiazkotasunari egin behar dio aurre. Ezagutza bat erakusten du, interpretazio eta gertutasun bat munduarekiko, zeinetan jainko eta heroiak protagonista nagusi izanik. (López Pérez 2005, 1). Errelato homerikoa ez da “logos” bat, hau da, arrazionalki sistematizatutako deskribapen kontzeptual bat, bazik eta “mito” bat da; deskripzio poetiko, literario, sinboliko eta metaforiko bar. Beraz metaforek eredu sinboliko bat eratzen duten heinean, irakurketa edo hizkuntza kontzeptualera itzulketa ezberdinak izan daitezke, gure kasuan hizkuntza geografikora, esanahi ezberdinak sortuz, euren artean baztertzailak ez direnak (Rodríguez, 2016).

Homero ahozko poesia heroikoa transmititzen aitzindari izan zen. Hau konposatzeko lehen arau nagusia publikoari sinesgarritasunaren egarria asetzea zen, ez kasu askotan egiarena. Beraz poeten lana asmakuntzan oinarritzen zen, eta seguruenik gizarte bat islatu beharrean, ideal heroiko bat lantzen zuen. Garai hartako jendea ere ez zen

egiaren atzetik joaten, guztiz ezagutu ezin zutelako eta ondorioz, marko erreal bat eraikitzen saiatzen ziren poetak. Idazkerarik eta erregistrorik ez zegoen mundu batean, egitasuna epaiketa subjektibo bidez lortzen zen, bai eta nola egin zen iraganean ikusita edo poeta baten ideiak beste batekin elkar gurutzatuz. Errepertorio poetiko guztia memoriaren parte bihurtzen zen istant berean eta onartua izaten zen antzinatek datorren tradizio bat zen heinean.

Poetaren eta publikoaren artean sinesgarritasunaren inguruan eztabaida horrela ixten bazen ere, baliogabekoa izan beharko luke historialari batentzat: Odiseoren mundua deskribatu eta kokatzeko eginiko ahalegina ezin da horren oinarri ezegonkorrean eraiki. Berdina gertatzen da esaterako Troiako gertakariekin; ezin da egiazat hartu soilik iraganeko gizarteentzat sinesgarria izan zelako belaunaldiz belaunaldi. Tradizioa esplikazio soil bezala, historia ulertu eta azaltzeko beharrari ihes egitea izango litzateke (Finley 1967, 78).

Aztarna materialekin ere egin izan diren saiakerak ez ditu beti esperotako fruituak eman. Schliemann arkeologo famatua izanik pertsona nagusi eta aitzindari, mizeniar kulturarekin erlazionatu nahi izan dira Homeroren protagonistak. Baina aurkitutako materialak eta material horien ezaugarri edota datazioek ez dute nahi izandako erantzunik ematen.

Dauden teoria guztien artean existitzen diren ezberdintasun handiak direla medio, adituek ondorioztatzen dute Homero ez zela geografia guztiz erreal bati buruz ari hizketan eta *Odiseako* bidaiak dirauen kokaguneak poesiaren mundukoak edo fantasiaren itsasokoak direla (Wolf 2004, 320).

Kultura klasikoetako mito eta kondaira askorekin gertatzen den bezala zail suertatzen da sarritan -ikastunen artean ikasienari ere bai- gure historiaren hasera puntua suposatu zuen testuinguruan, “enpirikoki” gezurtzat jotzen diren datuak onartzea. Askok Homeroren lana hartu eta horren arabera, logika erreal bat emateko saiakeran errealitateko datuak (geografikoak, fisikoak, kronologikoak...) desitxuratzen dituzte, biek ahalik eta gehien bat egin dezaten. Beste batzuk aldiz, Homeroren kontakizuna pixka bat desitxuratuz errealitatearen antz gehiago har dezan saiatzen ziren; baina badira beste batzuk, zergatik desitxuratu galdetzen dutenak, eta *Odiseako* geografiak datu erreal ugari aurkezten dituen arren, alegiazko literatur lan miresgarri bat kontsideratzen dutenak.

Gure kulturaren iturburuko lehenetariko ur-tanta suposatzen du Homeroren lan honek; eta inork ez du jakin nola sortu zen berau. Historia, geografia eta mitologia batera ekarri zituen iturburu honen benetako jatorria ez da guztiz jakin nahi akaso, antzinate

klasikoak gonbidatzen gaituen fantasiako melodian barnean lasai eta gustura murgildu gaitzkeelako. Beste etapa historiko berantiarragoetako mito ugari informazio historiko gisa baliogabetu diren arren⁶⁸, antzinate klasikoan baliteke nahastuta egotea oraindik zer bilatu nahi dugun eta zer aurkitzea desiratzen dugun: inspirazioa edo errealitate historikoa.

⁶⁸ *La Chanson de Roland* frantziarra edota *King Lear* ingelesa esaterako. (Finley 1975, 54)..

6. BIBLIOGRAFIA

- ANAKASSIS, D., 2004, «Gemination at the Horizons: East and West in the Mythical Geography of Archaic Greek Epic», *TAPA* 134, 215-233.
- BALLABRIGA, A., 1986, «Le soleil et le Tartare : l'image mythique du monde», *Grèce archaïque*, Paris: Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, 1321-1323
- BRIOSO SÁNCHEZ, M., 1993, «Geografía mítica de la Grecia Antigua I», *Philologia Hispalensis* 8, Sevilla, 193-214.
- 1994, «Geografía mítica de la Grecia Antigua II», *Philologia Hispalensis* 9, Sevilla, 187-209.
- CASSIRER, E., 1963, *Antropología filosófica*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- CHADWICK, J., 1993, *El mundo micénico*, Madrid: Alianza.
- COPELSTON, F., 2011, *Historia de la filosofía, tomo I Grecia y Roma*, Bartzelona: Ariel.
- DE LA TORRE, E., 1973, «Ítaca y Ulises», *Estudios Clásicos* 17, 221-239.
- ELIADE, M., 1975, *Iniciaciones místicas*, Madril: Taurus Editores.
- FINLEY, M.I., 1967, *El mundo de Odiseo*, Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- 1975, «Una pérdida: la guerra de Troya», *Aspectos de la antigüedad: descubrimientos y disputas*, Barcelona: Ariel, 37-54.
- FREELY, J., 2015, *El mundo de Homero*, Madril: Critica.
- GABBA, E., 1991, «L'insularità nella riflessine Antica», *Geografia storica della Grecia antica*, Erroma: Biblioteca di cultura moderna Laterza, 106-109.
- GONZÁLEZ TORRES, Á., 2006, «Mundo Micénico, Mundo Homérico: Debate historiográfico», *Panta Rei* I, 2.alea, 13-23.
- KONSTAN, D., 1986, «Comparative methods in mythology», *Arethusa* 19, 87-99.
- STASZAK, J.F.; Glacken C.J., 2002, «Histoire de la pensée géographique. 1- L'Antiquité», *Annales de Géographie*, 626zbk., 436-437.
- KIRK, G. S., 1985, *Los poemas de Homero*, Bartzelona: Paidos.
- LESKY, A., 1989, *Historia de la literatura griega*, Madril: Gredos.
- LÓPEZ PÉREZ, R.; ORELLANA RODRÍGUEZ, M., 2005, *El mito griego como antecedente de la racionalidad filosófica dimensiones filosófica, histórica y epistemológica del mito griego y su relación con el logos, entre los siglos VIII y V AC. D*, Txileko Unibertsitatea.
- MARTÍNEZ LORCA, A., 2001, «El antiguo Egipto en la cultura griega», *Revista del Instituto Egipcio de Estudios Islámicos* Madril: vol. 23, 97-110.

- MOLINA MARÍN, A., 2010, «Geographica: ciencia del espacio y tradición narrativa de Homero a Cosmas Indicopleustes», *Antigüedad y cristianismo: Monografías históricas sobre la Antigüedad tardía* 27, Murtziako Unibertsitatea, 47-61.
- 2012. «El geógrafo como filósofo en el mundo antiguo», *XIII Congreso de Estudios Clásicos Logroño*, 1-8.
- RIHLL, T. E., 1999, *Greek science*, Oxford: Oxford University Press.
- RODRIGUEZ, P., 2016., *Los viajes de Ulises. Geografía de la Odisea*. Estudio General de Humanidades (online), Webgunea: <http://www.estudiogeneraldehumanidades.es/lehen-ikuskatzea>: 2016-03-11.
- SCHODER, R. V., 1987, «Odysseus' Route», *The Classical Journal*, 82bol, 4.zbk, 319-324.
- VENTRIS, M.; CHADWICK, J., 1973, *Documents in Mycenaean Greek*, Cambridge: Cambridge University Press, 2.ed..
- VIDAL NAQUET, P., 2001, *El mundo de Homero*. Argentina: Fondo de Cultura Económica.
- WOLF, A., 2004, «Mapping Homer's Odyssey», *Eastern Mediterranean Cartographies*, ed. Tolia, G.; Loupis, D.; Institute for Neohellenic Research, Tetrada Ergasias 25/26, Atenas, 309-334.

Aztertutako Odisea liburua

- HOMERO, 1946, *Obras completas*, Segalá i Estalella (itzul.), El Ateneo, Buenos Aires.
- HOMERO, 1990, *Odisea*, J. Calvo Carilla, Cátedra, Madrid.

Euskarazko bertsioak

- HOMERO, 1985, *Odisea*, Aita Onandia (itzul.), Euskerazaintza, Deusto, Bilbo.
- IGERABIDE, J.K., 2000, *Homero. Ulises: Homeroren odisearen bertsioa*, Donostia: Erein.

Iturri klasikoak.

- POLIBIO, 1966, *The Histories* VI, Loeb, London.,
- STRABO, 1967, *The Geography*, Loeb, London.
- APOLLONIUS RHODIUS, 1988, *Argonautica*, Harvard University press, London.

TAULA

JONATHAN S. BURGESS-OUTREACH

Webgunea: "In the Wake of Odysseus",

Toronto-ko Unibertsitateko ikasleek aurrera eramandako ikerketa; ROP, SSHRC, UTEA konpainiekin batera.



6. ERANSKINAK

Pasarteak										
	Lotofagoak	Polifemoren Uhartea	Eolia	Telepilo Lestrigondarrak	Zirze -Eea	Sirenak	Eszila eta Karibdis	Trinazia	Kalipso-Ogigia	Feziarrak Eskeria uhartea
Iturri klasikoak	Libiako kostaldea; Djerba	Sizilia	Lipari Uharteak, Sizilia ip.	Lentini, Szilia; Formia, Napoli ip.	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Galli Uharteak; Napoli inguruan; Capo Peloro	Messinako itsasartea	Sizilia	Gozo; Atlantiar edo Adriatiar uhartea; Capo Colonna	Korfu
Stillman 1888	Djerba	Sizilia edo egeoko uharte bat.	Kokagunerik ez	Kok.ez	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Kok.ez	Messinako itsasartea	Kok.ez	Sardinia hegoaldeko uharte bat	Korfu
Halliburton 1927	Djerba	Favignana, Sizilia mend.	Lipari uharteak, Stromboli	Cefalu	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Kok.ez	Messinako itsasartea	Taormina	Gozo, Malta alboan	Korfu
Bérard 1933	Djerba	Posillipo, Napoliko kostea	Lipari uharteak, Stromboli	Porto Pozzo, Sardinia	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Galli Uharteak	Messinako itsasartea	Messina	Perexil Uharteak, Gibraltar-go itsasartea	Korfu
Golding 1958	Djerba	Sizilia	Lipari uharteak, Stromboli	Sizilia	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Galli Uharteak	Messinako itsasartea	Sizilia	Malta edo Gozo	Korfu ekialdea
Bradford 1963	Djerba	Favignana, Sizilia mend.	Ustica	Bonifazio, Korsika	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Galli Uharteak	Messinako itsasartea	Taormina	Malta	Korfu
Lessing 1965	Djerba	Posillipo, Favignana	Lipari uharteak, Stromboli	Bonifazio, Korsika	Zirzeo Mendia, Napoli ip.	Capri; Galli Uharteak	Messinako itsasartea	Kok.ez .	Kok.ez	Korfu
Obregon 1971	Libiako kostaldea	Malloka, Cabrera	Isla del Aire, Balear uharteak	Sardinia	Ischia uhartea, Napoli inguruan	Faraglioni, Capri	Messinako itsasartea	Sizilia ekialdea	Malta	Zipre
Severin 1987	Cyrenica, Libia	Paleochora inguruan, Kreta	Gramvousa uhartea, Kreta	Mezapos, Peloponeso	Paxos, Joniar Uharteak	Lefkas, Joniar Uharteak	Skila eta Iefkas artea	Meganisi, Uhartea Joniarrak	Saseno, Albaniako uhartea	Korfu
Roth 1999	Djerba	Sizilia mendeb.; Favignana	Marettimo, Egeoko Uhartea.	Bonifazio	Zirzeo Mendia	Galli Uharteak	Messinako itsasartea	Kok.ez	Gozo	Korfu
Huler 2008	Djerba	Sizilia mendeb.; Favignana	Vulcano, Lipari Uharteak	Bonifazio	Zirzeo Mendia	Galli Uharteak	Messinako itsasartea	Taormina	Malta	Korfu
Geisthovel 2010	Djerba	Matmata, Tunisia	Malta	Mozia, Sizilia mendeb.	Ustica, Sizilia	Capo Peloro, Sizilia I-E	Messinako itsasartea	Messina	Panarea, Lipari Uharteak	Tiriolo, Kalabria

MAPAK


1. mapa. Homeroren garaian ezagutzen zen mundua, Hekateoren (K.a.VI.) arabera.



2. mapa. Abraham Ortelius: “Erythraei Sive Rubri Maris Periplus.Ulyssis Errores” (Antwerp, 1597).




3. mapa. Pierre Duval: “La Carte de la Navigation D’Ulysse” (Paris, 1677).




4. mapa. Johann Heinrich Voss, "Homerische Welttafel" (Altona, 1793; bertsio errebisatua: Tübingen 1806).




5. mapa. William E. Gladstone, "Map of the Outer Geography of the Odyssey" (Oxford, 1858).




6. mapa. Eumaios, "Ulysses as circumnavigator of Africa and discoverer of America" (Leipzig, 1898).



7. mapa. Victor Bérard, "Itinéraire d'Ulysse dans les deux mers du levant et du couchant" (Paris, 1933).




8 mapa. Tim Severin, "The Odyssey's World" (London, 1987).




9. mapa. National Geographic Magazine, "The World of Homer ca 700 B.C." (Washington, D.C., 1982).



10. mapa. Armin and Hans; Helmut Wolf, "Homer's geography according to the four accounts of Ulysses" (Tübingen 1968; bertsio errebisatua: Karlsruhe, 1997).



11. mapa. Armin and Hans-Helmut Wolf, "Scheme: Homer's way of Ulysses" (Tübingen, 1968; bertsio errebisatua: Munich, 1990).



LEGENDA

LEKU ERREALAK

PILOS

LAZEDEMONIA

TROIA

ZIKONDARRAK (KITIRAKO LURRALDEA)

ITAKA

 TELEMAKIA (TELEMAKO)



 ODISEA (ODISEO)



ONDORIOZTATUTAKOAK

LOTOFAGOEN UHARTEA

POLIFEMOREN UHARTEA

EOLIA UHARTEA (EOLO)

TELEPILO UHARTEA (LESTRIGONDARRAK)

EEA UHARTEA (ZIRZE)

SIRENEN UHARTEA

SZILA ETA KARIBDIS

TRINAZIA UHARTEA

OGIGIA UHARTEA (KALIPSO)

ESKERIA UHARTEA(ALTZINOO)

AZPIMUNDUA

JONIA: IDAZLEAREN KOKALEKUA

 ITURRI
KLASIKOAK

 ITURRI
GARAIKIDEAK

LU

PU

EU

TU

Eea

SU

SK

TU

OU

Es

A 



JONIA: *Odisea* idatzi zen zonaldea (autorearen herrialdea)

IDENTIFIKAZIO ESPARRUAK



Autoreak ezagutzen/kontrolatzen duen eremua

Garrantziagatik ezaguna zaion eremua

Errealak ez diren Lurreko kokaguneak

Errealak ez diren Lurretik kanpoko kokaguneak